

EMAKUMEAREN DUINTASUNA

Urriaren hasieran Emakumearen Duintasuna deritzan Joan Paulo Ilaren «Gutun Aportolikoa» argitaratu zen. Andra-Maria, Birgina, Emazte eta Amari egindako omenaldi bezala agertzen da, eta Andra Mariaren bidez munduko emakume guztiak egiten die eskerroneko kantika bat. Aita Santuaren borondatea dela eta, agiri honek gogarte edo meditazio tankera hartzen du. Honen esanahia zera litzateke: bere helburua, dotrinala baino erlijiosoa dela gehiago. Wojtyla Aita Santuaren dokumentazio zabal guztitik gutun hau izango da, behar bada, aberastasun eta konplexutasunaren adibide garbiena.

Gure gaurko gizarte hau mota guztietako feminismoaz as-tindurik dago. Katoliko-erronikar komunitateetan sortzen dira lehendabiziko ekimenak emakumearen bereizkeriarekin bukat-zeko gizarte eta Eleizan. Anglikar Elkartasunian emakumeen apezpiku eta apaiz ordenazio ofizialki onartzen da. Joan Paulo IIak, garai honetako zeinu hauek kontutan hartuz, kontenplazio erlijioso, ikerketa antropologiko eta erreflexio teologikoa izan nahi duen agiri hau idazten du.

Aita Santuak zera prometatzen digu: bere hurrengo «Ahol-ku Apostolikuan», emakumeak gaur egun gizartean eta Elizan duen egoerari buruzko zerbait itxura praktikoa eta apezpikutar aztertuko dituela.

Gutun honen abiapuntua ez da Marian Koroatutako emak-

kumetar duintasunaren ikerketa bat, baizik eta Jesukristoren Ama Birginarekiko egindako erreflexio bat, zeinen bidez amatasuna goratzen da. Guzti honetan Maria eta Kristo izate bixedunaren adierazgarri izango dira, eta bestalde, gaur egun hain diskriminaturik dagoen emakumearen birbalarapena lortzeko bide kristaua.

Diskriminazio sexuala, Aita Santuak ez du iratxekitzen faktore soziologikoei bakarrik, baita jatorrizko pekatuari ere. Horregaitik, emakumearen eskakizuna Kristom egindako berrerospenak jarraitu zuen bidetik jo behar du, non Mariari garrantzia izugarria izan da.

Joan Paulo IIak emakumeari buruz hitzegiterakoan, «tabu» batekin apurtzen du apaiz giroko tankeran. Honelako aldaketa batek benetako eragin baikorra suposa dezake geroaldian. Erreflexio interesgarriak egiten ditu gizakiaren izate sexuatuari buruz, bere irekitasun sexualaren beharrezana eta bikote egonkorran, hau da, ezkontzan, emandako norberaren garapenari buruz.

Ikuspuntu teologiko bat ere du gutun honek: bi sexuen osagarritasuna eleiz funtzioan azaltzen du Aita Santuak. Jesusen bi erabaki garrantzitsu aipatzen ditu: hamabi gizonen aukera eta hauei emaniko ahalmen eukaristikoa, eta hauek oinarri bezala hartuz eleiz ohiturei buruz hitzegiten du, gizonen ordenazio soila, bai presbiter gora eta bai apezpikutzara, direla eta.

Emakumeak eta gizonak duintasun berdina baldin badute, zergaitik Eleizan apezgoa gizonezkoentzat erreserbatutik dago? Jesusen borondatean oinarritzen da Joan Paulo II. Jesusek, zeinek berdin berdip balioztatu zuen emakumea eta gizona, bere ikaslektariko bakar batzuk ordenatu zituen, zeintzuen tartean emakume bat ere ez. Eleizak zintzo jarraitu behar dio Jesusen erabaki honi. Baina honek ez du esan nahi Jainkoak gehiago maite duenik gizonezkoari emakumeari baino; egitez, Jainkoak gehien maitatutako pertsona emakume bat da: Andra Maria, bere Ama.

Gizonaren funtzio hau beranduago osatzen da emakumea-

ren soslaiarekin, zehin beharrezkoa da Elcizan, eta zeinen funtzioa dohaino eta emanaldia dira.

Amaitzerakoan gutunak hainbat emakume honen hitzak aipatzen ditu, bai erlijiosoa eta laikenak.

Gutun honetan Joan Paulo IIak emakumearen eskubide sozial eta politikoak defendatzen ditu. Hau, giza eskubideen eskakizunaren ondorio argia da, zeintzuk noski ez dirala lortu behar gizonezkoentzat bakarrik.

Konfidantza eta maitasun handiz jaso behar dugu denok Aita Santuaren Gutun Apostoliko hau, batez ere kristauak.

Miren Itziar Dañobeitia